

3/2023 INSTRUKZIOA, APIRILAREN 27KOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, LEHEN MAILAKO ARRETAKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOEI (FAMILIA-MEDIKUAK ETA PEDIATRAK ERRETIRO AKTIBOA APLIKATZEARI BURUZKOA.)

20/2022 Errege Lege Dekretuak premiazko neurriak ezartzen ditu oso eragin negatiboa izaten ari diren hutsune batzuk estaltzeko, hala nola Osasun Sistema Nazionalean fakultatiboan eskasia larria (20/2022 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurriena eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun-egoera batzuei erantzuten laguntzekoa).

Horretarako, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatu da. Hala, sektore publikoan (Osasun Zerbitzu Publikoa) lanaren eta erretiroaren bateraezintasunaren arau orokorra salbuesten da, eta, hurrengo hiru urteetan (2023, 2024 eta 2025), Lehen Mailako Arretako fakultatiboek (familia-medikuak eta pediatrik) osasun-zerbitzuari atxikitako eginkizunak betetzen jarraitu ahal izango dute, estatutupeko langile edo funtzionario gisa, eta, aldi berean, erretiroa hartu ahal izango dute, eta erretiro-pentsioa eta fakultatibo aktibo gisa jasotzen duten soldata edo ordainsaria bateragarri egin.

Era berean, 2022ko ekitaldian jada erretiroa hartuta zeuden Lehen Mailako Arretako fakultatiboek, bai eta covid-19ak eragindako pandemiaren aurkako borrokaren esparruan lana eta pensioa bateragarri egiteko neurri bereziari heldu zioten lehenagoko erretiratuek ere, bateragarritasun horri heldu ahal izango diote; hau da, lanerako prest daudela adierazi ahalko dute, eta ordainsaria eta erretiro-pentsioa aldi berean jaso.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren kasuan, hurrengo hiru urteetan ohiko erretiro-adinera iritsiko diren Lehen Mailako Arretako profesionalak (familia-medikuak eta pediatrik) 2023an kategoria horietan lan egiten duten profesional guztien % 15 dira. Bestalde, ez da ohikoa lanean jarraitzea erretiroa hartzeko ohiko adina bete ondoren. Horregatik, neurri horiek ezartzea erakargarria izan daiteke erretiro-agina betetzetik hurbil dauden Lehen Mailako Arretako fakultatiboentzat. Izan ere, neurriok bizitza aktiboa luzatzeko aukera arautzen dute, erretiro-pentsiorako eskubideei uko egin gabe; gainera, osasun-zerbitzu publikoan LMAko fakultatiboan eskasiak duen eragin negatiboa murrizten laguntzen dute.

Ildo horretan, Administrazio Kontseiluak honako erabaki hau hartu zuen 2023ko Apirilaren 27an:

Lehenengoa.– Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren hogeita hamabosgarren xedapen iragankorrean araututako neurriak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan ezartzea erabakitzea.

Salbuespen gisa, hogeita hamabosgarren xedapen iragankorrean aipatzen diren pertsonen 70 urte bete arte jarraitu ahal izango dute lanean, eta ez da aplikatuko indarrean dagoen Giza Baliabideak Antolatzeako Planean xedatutakoa.

Bigarrena.– Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari baimena ematea baldintza teknikoak eta prozedura arautu ditzan, neurriok ezartzeko.

Aipatutako erabakian ezarritakoa gauzatze aldera, instrukzio hau ematen da, zeinaren bidez ezartzen baitira, batetik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak erretiro-pentsioaren eta zerbitzuak ematearen arteko bateragarritasuna onesteko irizpideak, eta, bestetik, aktibo ez dauden langileak izendatzeko prozedura.

INSTRUKZIOA:

1.– Xedea eta helburua

Instrukzio honen xedea da alderdi teknikoak eta bete beharreko prozedura arautzea, erretiro-pentsioa eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lan egitearen ondoriozko ordainsariak bateragarri egiteko, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren hogeita hamabosgarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzei jarraituz.

Hartutako neurriaren helburua da Lehen Mailako Arretako fakultatiboen gabeziari aldi baterako erantzutea. Nolanahi ere, aldi baterako langileen kontratazio-zerrendak aplikatuko dira; beraz, aktibo ez dauden langileak lanean hasi aurretik, aldi baterako kontratazioko poltsetan dauden langileei egin beharko zaie eskaintza.

2.– Aplikazio-eremua

Instrukzio hau Lehen Mailako Arretako fakultatibo hauei aplikatuko zaie:

A.– Funtzionario edo estatutupeko izendapena duten Lehen Mailako Arretako fakultatiboak (familia-medikuak eta pediatriak). Beren eginkizunak betetzen jarraitu ahal izango dute zerbitzu aktiboaren luzapenean, eta, aldi berean, erretiroa hartu ahal izango dute.

B.– Funtzionario edo estatutupeko izendapena duten Lehen Mailako Arretako fakultatiboak (familia-medikuak eta pediatriak), erretiro-pentsio kontributiboa eskuratu dutenak eta zerbitzu aktibora itzultzen direnak, betiere pensio hori eragin duen gertaera 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa bada.

Pentsioa eskuratzeko, aurretik kasuan-kasuan aplikagarria den adina beteta izan beharko da, 205.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, horretarako, ez da onartuko interesdunari aplikatu ahal zaizkion hobariei edo erretiro-adinaren aurrerapenei atxikitako erretirorik.

C.– Lehen Mailako Arretako fakultatiboak (familia-medikuak eta pediatriak), erretiroa hartu ondoren lan egin dutenak honako honen babesean: 8/2021 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 4koa, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharreko osasun-, gizarte- eta jurisdikzio-mailako presako neurriak hartzen dituen (926/2020 Errege Dekretua,

urriaren 25ekoa, alarma-egoera deklaratzeko duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko).

3.– Iraupena

Arau-aurreikuspenak hiru urteko indarraldia du, eta 2025eko abenduaren 28an amaituko da.

4.– Eskakizunak

- a) Bateragarritasuna lanaldi osoaren kasuan aplikatuko da, baita lanaldi partzialaren kasuan ere, betiere lanaldiaren murrizketa lanaldi osoan dagoen pareko langile baten lanaldiaren ehuneko berrogeita hamarrekoa bada.
- b) Ezin izango dute bateragarritasun-modalitate hau baliatu Gizarte Segurantzaren erretiro-pentsio kontributibo baten onuradunak, baldin eta, Lehen Mailako Arretako faktultatiboan eginkizunak betetzeaz gain, Osakidetzatik kanpo, besteren kontura edo bere kontura, beste edozein lan egiten badu, eta lan horrek Erregimen Orokorren edo Gizarte Segurantzaren araubide bereziren baten aplikazio-eremuan sartzea badakar.
- c) Langile onuradunek zerbitzu asistentzialak eman beharko dituzte Lehen Mailako Arretaren eremuan.
- d) 70 urtetik beherakoa izatea.

5.– Izapidetzea

5.1. Zerbitzu aktiboaren luzapena duten langileak

Luzapena duten langileek Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean egin beharko dute eskaera, erakunde hori baita pentsiodunaren egoera aitortzeko eskumena duen erakunde kudeatzailea. Horretarako, alde zuzenetik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari onespena eskatu beharko diote.

Aukera hau baliatzen duten langileek eskaeraren unean betetzen duten lanaldiari eutsi beharko diote, hargatik eragotzi gabe legezko zaintza kasuetan lanaldia murrizteko aukera (senideak zaintzeko).

5.2. Aktibo ez dauden langileak

Izendapena formalizatzeko, langilearen gaitasun funtzionala behar bezala egiaztatu beharko da. Osasun-zerbitzuak berak egingo du ebaluazioa eta dagokion ziurtagiria emango du.

Hau izango da prozedura:

- a) Kontratazio-poltsa eratzea.
 - Bai 2022an erretiratutako langileen kasuan, bai erretiratu ondoren covid-19ak eragindako pandemia dela eta zerbitzuak eman zituzten langileen kasuan, lanean egon ziren azken zerbitzu-erakundeak jakinaraziko du pentsioaren eta Osakidetzan lan egitearen arteko bateragarritasuna, eta eskaera-inprimakia bidaliko du.

- Aurkeztutako eskaerekin poltsa bat eratuko da; alegia, lan egiteko prest dauden Lehen Mailako Arretako fakultatibo ez-aktiboen poltsa.
- Interesdunak zein lurralde-eremutan lan egin nahi duen adieraz dezake eskaeran. Halakorik adierazten ez badu, edozein zerbitzu-erakundetan lan egiteko prest dagoela ulertuko da.
- Interesdunek lanaldi osoa edo partziala aukeratu ahal izango dute, kontuan hartuta lanaldiaren % 50 egin beharko dutela.
- Zerbitzu-erakunde bakoitzak bertako Lehen Mailako Arretako zentroetan lan egiteko prest dauden langile ez-aktiboen zerrenda kudeatuko du.
- Eskaera-dataren arabera egingo dira deiak, eta, data bera duten izangairik egonez gero, gazteenak izango du lehentasuna zaharrenaren aurrean.
- I. eranskinean dago jakinarazpenetarako eredia. Bertan, interesdunak adierazi beharko du non dagoen lan egiteko prest: bere azken lantokian, bere erakundeko beste lantoki batzuetan, edo beste erakunde batean edo batzuetan (zeinetan adierazi beharko da).
- Beste zerbitzu-erakunde batean edo batzuetan lan egiteko prest daudela adierazten dutenen kasuan, eskaera jasotzen duen zerbitzu-erakundeak zerbitzu-erakunde hautatuetako Langileen Zuzendaritzari bidaliko die eredia eskaneatuta. Horrela, zerbitzu-erakunde bakoitzak bertan lan egiteko prest dauden fakultatibo ez-aktiboen zerrenda kudeatu ahalko du.
- I. eranskinarekin batera, informazio-gida bidaliko da.

b) Izendapen mota.

- Erretiro-egoeran daudenen kasuan, aldi baterako programak gauzatzeko bitarteko administrazio-izendapen bat formalizatu behar da, Esparru Estatutuaren 9.1.b) artikuluan araututakoaren arabera.
- Egiten diren izendapenak programa bakarrari egotziko zaizkio, zerbitzuak ematen diren erakundea edozein dela ere, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren hogeita hamabosgarren xedapen iragankorreko erretiro aktiboari lotuta egongo dira.
- Izendapen honen ondorioz dagokion kategorian eta lanpostu funtzionalean langileak egin beharreko eginkizunak eta betebeharrak ezarrita daude ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legean, Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan eta Osakidetzaren Ente Publikoko jardura arautzen duten gainerako xedapen orokor nahiz espezifikoeetan.
- Hasierako izendapena eta luzapenak gehienez ere 5 hilabeterako formalizatuko dira.
- Erretiro-pentsioarekin bateragarria den lana egiten den bitartean, afiliazioko, altako, bajako eta datu-aldaketako betebeharrak aplikatuko dira, bai eta legez ezarritako baldintzetan kotizatuzko betebeharra ere.

- c) Erretiro-egoeran dauden langile ez-aktiboak kontratatu aurreko eskakizunak.
Prestazio asistentziala bermatzeko asmoz Lehen Mailako Arretako fakultatiboak kontratatu behar dituen zerbitzu-erakundeak, aldez aurretik, aldi baterako langileak kontratazeko poltsa espezifikoarene bidez eskaini beharko du premia hori, aipatutako poltsetan langilerik ez dagoenean izan ezik. Bestalde, eskaintza hutsik geratzen bada edo langilerik ez badago –bi kasu horietan soilik–, instrukzio honetan aurreikusitako deialdia egin ahal izango du.
Era berean, izendapena amaitu baino lehen, eskaintza errepikatu beharko du, aldi baterako langileen kontratazio-zerrenden bidez. Horrela, amaiera-datan eskaintza esleitu ez bada, pentsioa eta lana bateragarri egiten dituzten langileen izendapenaren luzapena izapidetuko da.
- d) Izendapena amaitzeko arrazoiak
Programak gauzatzeko bitarteko izendapenatarako oro har aurreikusitakoez gain, izendapena amaitzeko arrazoiak izango dira 68 urte betetzea eta bateragarritasunaren legezko aurreikuspena amaitzea.

6.– Pentsioari buruzko beste arau batzuk

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren hogeita hamabosgarren xedapen iragankorrak erretiro-pentsioa ordaintzeari buruzko beste alderdi batzuk arautzen ditu 5., 6. eta 7. puntuetan. Erakunde kudeatzaileari dagokio alderdi horiek aplikatzea, eta, beraz, Gizarte Segurantzaren Institutu Orokorak horri buruz xedatzen duena bete beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 27an



Sin.: **MARIA ROSA PÉREZ ESQUERDO**
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA

I. ERANSKINA:

XXXXXXXXX jauna/andrea

Honen bidez jakinarazten dizugu bateragarri egin ditzakezula erretiro-pentsioa eta Osakidetzako lana, araudi honen arabera:

“Abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuak premiazko neurriak jasotzen ditu oso eragin negatiboa izaten ari diren hutsune batzuk estaltzeko, hala nola Osasun Sistema Nazionalean fakultatiboan eskasia larria.

Horretarako, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatu da. Hala, sektore publikoan (Osasun Zerbitzu Publikoa) lanaren eta erretiroaren bateraezintasunaren arau orokorra salbuesten da, eta, hurrengo hiru urteetan (2023, 2024 eta 2025), Lehen Mailako Arretako fakultatiboek (familia-medikuak eta pediatrak) osasun-zerbitzuari atxikitako eginkizunak betetzen jarraitu ahal izango dute, estatutupeko langile edo funtzionario gisa, eta, aldi berean, erretiroa hartu ahal izango dute, eta erretiro-pentsioa eta fakultatibo aktibo gisa jasotzen duten soldata edo ordainsaria bateragarri egin, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren hogeita hamabosgarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan”.

Zure kasuan, araudi hori aplikatu behar da. Beraz, zerbitzuak emateko prest bazaude, eredu hau bete eta guri bidaltzeko eskatzen dizugu:

Langilearen datuak

Izen-abizenak:					
NAN:					
Telefonoa:			Helbide elektronikoa:		
Non zaude lan egiteko prest?					
<input type="checkbox"/> Azken lantokian					
<input type="checkbox"/> Azken zerbitzu-erakundeko zentroetan					
<input type="checkbox"/> Beste zerbitzu-erakunde batean (zehaztu lehentasun-ordenaren arabera)					
Lanaldi mota:					
<input type="checkbox"/> Lanaldi partziala (50%)					
<input type="checkbox"/> Lanaldi osoa					
Banku-kontua (Osakidetzak duenaz bestelakoa bada soilik)					
Herrialdearen kodea	Erakundea	Bulegoa	KZ	Kontua	

Data eta eskatzailearen sinadura

GIDA INFORMATIBOA: OSASUN SISTEMA NAZIONALERA ATXIKITA DAUDEN ETA FUNTZIONARIO EDO ESTATUTUPEKO IZENDAPENA DUTEN LEHEN MAILAKO ARRETAKO FAKULTATIBOEN (FAMILIA-MEDIKUAK ETA PEDIATRAK) ERRETIRO-PENTSIONA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO ESKAERA, GSIN-EN TRAMITATZEKO

Prozedura

1. modalitatea: Osasun Sistema Nazionalari atxikitako Familiako eta Komunitateko Medikuntzako edo Lehen Mailako Arretako Pediatriako fakultatibo espezialistak, funtzionario edo estatutupeko izendapena dutenak, zerbitzu aktiboaren luzapenean beren eginkizunak betetzen jarraitu nahi dutenak, eta, aldi berean, erretiroa hartu nahi dutenak eta pentsioaren hasierako aitopenerari dagokion zenbatekoaren ehuneko hirurogeita hamabosta jaso.

Interesdunek ohiko prozeduraren bidez eskatu beharko dute erretiroa, Gizarte Segurantzaren webgunean eskuragarri dagoen inprimakia beteta: Gizarte Segurantza / Hasiera / Pentsiodunak / Zerbitzuak / Prestazio-eskaerak / Pentsioak / bestelako nazio mailako prestazioak / Erretiroa (erantsitako inprimakia erabil daiteke, edo jarraian agertzen den esteka).

https://www.seg-social.es/wps/wcm/connect/wss/aefe6086-1e56-4e0e-88f0-a8acff5c33ac/J-6_Castellano_45+%283%29.pdf?MOD=AJPERES

Inprimakiko 2.- *DATOS DE SITUACIÓN LABORAL, 2.1: ACTUAL* atalean, aukera hau adierazi beharko da: *"Si Vd. desea jubilarse y continuar trabajando sin solución de continuidad bajo la modalidad de jubilación "activa", o bajo la modalidad prevista para facultativos de atención primaria adscritos al Sistema Nacional de Salud. Señale esta opción y concrete la fecha de la jubilación teniendo en cuenta que debe ser posterior a la fecha en la que presente esta solicitud..... (indicar fecha)"*.

Bestalde, *2.5 COMUNICACIÓN DE INICIO DE ACTIVIDAD LABORAL SIMULTÁNEA A LA CONDICIÓN DE PENSIONISTA* atalean, hau adierazi beharko da: *ACTIVIDAD COMO FACULTATIVO DE ATENCIÓN PRIMARIA ADSCRITO AL SISTEMA NACIONAL DE SALUD*.

Honako atal hauek ere bete beharko dira: *DECLARACIÓN DE ACTIVIDAD: Actividad por cuenta ajena. Empresa: Servicio de Salud al que se incorpora y Jornada que está realizando: Completa o Parcial*. Jardueraren edota bateragarritasunaren hasiera-data ere idatziko da, zeinak 2.1 atalean adierazitakoarekin bat etorri beharko duen.

Bestalde, **osasun-zerbitzuetako Langileen unitateek ADENDA - CONFORMIDAD DE LA EMPRESA/ORGANISMO** delakoa bete beharko dute (inprimakian bertan dago), baldin eta interesdunak edozein bitartekoren bidez hala eskatzen badu, eta GSINera bidali beharko diote erretiro-eskaerarekin batera, erregistro ofizial baten bidez edo telematikoki, Gizarte Segurantzaren webgunearen bidez. Ondorioz, intresdunak eskaera egin ondoren, adenda lehenbailehen betetzeko eskatzen dizuegu, kontuan hartuta langileak inprimakiaren 2.1 atalean adierazten duen data hori bera adierazi behar dela. Data hori, gainera, erretiro-eskaera GSINi aurkezten zaion data baino geroagokoa izan behar da.

2. modalitatea: Osasun Sistema Nazionalari atxikita dauden eta funtzionario edo estatutupeko izendapena duten fakultatiboak, erretiro-pentsio kontributiboa eskuratu eta zerbitzu aktibora itzultzen direnak, baldin eta pentsio hori eragin duen gertaera 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa bada, edo erretiro-pentsioa eta profesional sanitarioen

funtzionario edo estatutupeko izendapena bateragarri egiteko neurriari atxiki bazaizkio, maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren babesean.

Kasu horietan, pentsioaren % 75aren eta lanaren arteko bateragarritasuna eskatu beharko dute, jakinarazpen hau GSINera bidalita:

https://www.seg-social.es/wps/wcm/connect/wss/39fd1ad0-f7d6-4e4a-b681-a9467751b1ec/6-090_Castellano_1.pdf?MOD=AJPERES

2022ko urtarriletik aurrera erretiroa hartu duten Osasun Sistema Nazionalako Lehen Mailako Arretako medikuek, lana eta erretiro-pentsioa bateragarri egiteko modalitate berri honi heldu nahi badiote, jardueraren hasiera eta amaiera jakinarazi beharko dute, Gizarte Segurantzaren webgunean eskuragarri dagoen inprimaki baten bidez. Hain zuzen, pentsiodunen eskabideak/jakinarazpenak ataleko inprimakia bete beharko dute.

https://www.seg-social.es/wps/wcm/connect/wss/39fd1ad0-f7d6-4e4a-b681-a9467751b1ec/6-090_Castellano_1.pdf?MOD=AJPERES

Osasun Sistema Nazionalak arautuko du interesdunak bete beharreko prozedura. Prozedura, beraz, ez dago Osakidetzaren eskumenen barruan. GSINK soilik egiaztatuko du eskaeretan adenda behar bezala beteta dagoela.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera erretiro-pentsiodun direnek edo bere garaian 8/2021 Errege Lege Dekretuan ezarritako bateragarritasunari heldu diotenek pentsioaren % 75aren eta lanaren arteko bateragarritasuna eskatu beharko dute, honako jakinarazpen honen bidez:

https://www.seg-social.es/wps/wcm/connect/wss/39fd1ad0-f7d6-4e4a-b681-a9467751b1ec/6-090_Castellano_1.pdf?MOD=AJPERES

Bere garaian aurretiko arau horri heldu zioten profesionalak, gaur egun aktibo ez daudenak eta erretiro-pentsio kontributiboa eta lana bateragarri egiteko aukera berria baliatu nahi dutenak, hau da: Osasun Sistema Nazionalari atxikita dauden eta funtzionario edo estatutupeko izendapena duten Lehen Mailako Arretako fakultatiboak (familia-medikuak eta pediatriak). (Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hogeita hamabosgarren xedapen iragankor berria).

Bere garaian maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuan xedatutakoari heldu zioten eta gaur egun aktibo ez dauden fakultatiboek erretiro-pentsio kontributiboa eta lana –Osasun Sistema Nazionalari atxikitako Lehen Mailako Arretako fakultatibo gisa (familia-medikuak eta pediatriak)– bateragarri egiteko aukera berriari heldu nahi badiote, araudi berrian oro har xedatutakoa aplikatuko zaie (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 35. xedapen iragankorra). Aipatutako 8/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharreko osasun-, gizarte- eta jurisdikzio-mailako presako neurriak hartu ziren (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, alarma-egoera deklaratzeko duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko). Era berean, honako jakinarazpen honen bidez egin beharko dute eskaera:

https://www.seg-social.es/wps/wcm/connect/wss/39fd1ad0-f7d6-4e4a-b681-a9467751b1ec/6-090_Castellano_1.pdf?MOD=AJPERES

GSINen informazio gehiago

<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10963/28393/285e52e8-4ff0-4c55-9379-b9e5b424507f>

<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Pensionistas/Servicios/34887/40968/34888#Conformidadempresajub>

https://www.seg-social.es/wps/wcm/connect/wss/aefe6086-1e56-4e0e-88f0-a8acff5c33ac/J-6_Castellano_45+%283%29.pdf?MOD=AJPERES

https://www.seg-social.es/wps/wcm/connect/wss/e31855a4-f74e-4ce5-9d5e-e5c1cfbd90be/6-091_Castellano_1.pdf?MOD=AJPERES

